


TicketBAIren proba ingurunearen gida

TicketBAI fakturak jasotzeko eta baliogabetzeko zerbitzua probatzea

Arabako Foru Ogasunak proba ingurunea jarri du enpresa eta pertsona interesdunen eskura beren sistema informatikoei TicketBAIren zehaztapenak betetzen dituztenez egiaztatzeko. Horretarako, REST zerbitzu bat garatu du; fakturazio softwareetatik deitu beharko da. Hauxe da funtzionamenduaren eskema:



TicketBAI Araba sistemak XML fitxategi batekin erantzungo die eskaerei (faktura bati alta emateko eskaerei zein faktura bat baliogabetzeko eskaerei). TicketBAI sistemarekin integratzeko behar den dokumentazio teknikoak eguneratuta dago gure webguneko dokumentazioaren atalean.

Proiektuaren dokumentazioa:

- TicketBAI sistemaren zehaztapen funtzional eta teknikoaren dokumentua 1.2
- Fakturak bidaltzeko eta baliogabetzeko XSD fitxategien eskema 1.2
- TicketBAI sinadura politika 1.0

- TicketBAI altako fitxategiaren egitura (I. eranskina)
- TicketBAI baliogabetzeko fitxategiaren egitura (II. eranskina)
- ARABA sinaduraren zehaztapenak (III. eranskina)
- ARABA zehaztapen teknikoak eta funtzionalak (IV. eranskina)
- TicketBAI Araba altako fitxategiaren baliozkotzeak
- TicketBAI Araba baliogabetzeko fitxategiaren baliozkotzeak

Nola egin probak?

Softwarea garatzen duten enpresek edo pertsona interesdunek probak egin nahi badituzte Arabako Foru Ogasunaren PRE ingurunean, mezua bidali behar dute informaciontecnicaTBAI@araba.eus helbidera eta honako datu hauek adierazi:

- Mezuaren gaia: TicketBAI sistemaren probetan parte hartzeko eskaera
- Enpresaren edo pertsonaren izena
- Enpresaren edo pertsonaren IFZ (XMLko Softwarea/Entitate garatzailea/IFZ elementuan adierazten den bezala)
- Softwarearen izena (Softwarea/Izena elementuan agertzen den bezala)
- Harremanetarako pertsona eta datuak: emaila edota telefonoa

Mezuaren erantzunean identifikazio kodea bidaliko da; kode hori XML fitxategietan txertatu behar da, TBAI lizentzia eremuan. Kode hori aldi baterako baino ez da: probaldia amaitutakoan ezin izango da erabili.

(TBAI lizentzia Arabako probetarako baino ez da. Gipuzkoako edo Bizkaiko software bermatzailearen erregistroan izena emanda daude pertsonak eta enpresek ere eskatu behar dute. Sistema abian jartzen denean, probetarako lizentziak ezin izango dira erabili.)

Probak egiteko jarraibideak:

1. Probetan egiten diren bidalketek ez dute edukiko zerga ondoriorik.
2. Proba ingurunea 2021eko irailetik aurrera erabili ahal izango da.
3. Zenbanahi bidalketa egin ahal izango dira.
4. Hona hemen web zerbitzuen proba inguruneen URL helbideak:
 - Fakturei alta ematea (faktura osoak, erraztuak eta zuzentzaileak)
<https://pruebas-ticketbai.araba.eus/TicketBAI/v1/facturas/>
 - Fakturak baliogabetzea
<https://pruebas-ticketbai.araba.eus/TicketBAI/v1/anulaciones/>
5. Probak egin nahi izanez gero, bidalketak egiteko ziurtagiri homologatua beharko da, ez iraungita ez ezeztatuta ez dagoena, eta horrez gainera TicketBAI XML fitxategia sinatzeko ziurtagiria ere bai (aurreko bera izan daiteke) .
6. Altako eta baliogabetzeko fitxategien sinadura elektronikoan
<https://ticketbai.araba.eus/tbai/sinadura/> identifikatzailea eta horren Hasha
SHA256 d69VEBc4ED4QbwnDtCA2JESgJiw+rwzfutcaSI5gYvM=
sartu behar dira.
7. Kontsultetarako, arazoetarako eta proben inguruko gai teknikoetarako honako postontzi elektroniko hau erabiliko da: informaciontecnicaTBAI@araba.eus. Kontsultak errazago kudeatzeko, komeni da postaren izenburuan "TicketBAI probak PREn: Enpresaren izena/Kategoria: XXXXX" jartzea, kategoria hauetako bat dela:

- Erroreak fakturak bidaltzean
- Erroreak fakturak baliozabetzean
- Ziurtagiriak
- Jaulkitzailearen IFZ
- Eskemak eta baliozkotzeak
- Beste batzuk

Gainera, bidalitako XMLa eta jasotako erantzuna erantsi behar dira.

8. Probetan den TicketBAI sistemaren inguruko berri guztiak webgunean jakinaraziko dira.

Nolakoa izan behar da igorlearen IFZ probetan aritzeko?

Zeinahi IFZ zuzen erabil daiteke.

REST zerbitzuak TicketBAI fitxategiaren igorlearen IFZ arabar zergadun batena denez egiaztatuko du. Gainera, pertsona fisiko batena bada, JEZen (jarduera ekonomikoen gaineko zerga) alta emanda dagoenez egiaztatuko da.

PREn baldintza horiek gertatzen ez badira, honako abisu hau agertuko da: **“OHARRA: Jaulkitzailearen IFZ ez da zuzena: ez da Arabako zergaduna edo ez dago erregistratu JEZen”**.

Abisu horrek ez ditu etengo probak. Nolanahi ere, probak blokeatzen badira, berriz ere erabilgarri jar daitezke: informaciontecnicaTBAI@araba.eus helbidera mezua bidali behar da, gaian “TicketBAI probak PREn: Enpresaren izena / Kategoría: Jaulkitzailearen IFZ” idatzita, eta honako datu hauek adierazi behar dira:

- Jaulkitzailearen IFZ
- Izena eta abizenak/Sozietatearen izena

Probetarako gailu ziurtagiria erabiliz gero:

REST zerbitzuak egingo dituen lehen egiaztapenetako bat izango da igorpena egiteko erabiltzen den ziurtagiria baliozkoa den ala ez ikustea.

Gailu ziurtagiria erabiliz gero bidalketa egiteko, gailu ziurtagirien errolda batean erregistratuta dagoen egiaztatuko da.

Erregistraturik egon ezean, zerbitzuak honako abisu hau pantailaratuko du: **“OHARRA: Igorlearen fakturazio gailua ez dago erregistratuta”**.

Ohar honek ez du probak egitea eragozten, baina ager ez dadin, “Gailu ziurtagirien erregistroa (Probako bertsioa)” aplikazioan sartu behar duzu eta gailuaren ziurtagiriari alta eman eta erabiltzen duen jaulkitzaileari lotu.

(Behin besterik ez da egin behar)

Bidalketarako erabiltzen den ziurtagiriaren IFZ igorlearen IFZ bera ez bada:

Bidalketa egiteko, pertsona fisiko baten ziurtagiria, pertsona juridiko baten ordezkariaren ziurtagiria, enpresa zigilua edo autonomo baten ziurtagiria erabiliz gero, ziurtagiriaren IFZak igorlearen IFZdunari fakturak egin ahal dizkiola egiaztatuko da.

Bidalketa egiteko erabiltzen den ziurtagiriaren IFZ igorlearen IFZ bera bada: zuzen dago

Bestela, TicketBAI fitxategian honako hau adierazi behar da: <Hirugarren batek edo hartzaileak egindako faktura> = T (Hirugarrena)

edo <Hirugarren batek edo hartzaileak egindako faktura> = D (Hartzailea); honelakoetan igorlea fakturaren hartzaileetako bat izan behar da.

Oharra:

EKOIZPEN ingurunean

Zergadunak edo horretarako izendatutako ordezkariak (2d mailako borondatezko ordezkariak) bete ahal izango du TicketBAI betebeharra, eta betebehar hori betetzeko ahalmena izango du.

Kasu horretan, <Hirugarren batek edo hartzaileak egindako faktura> = N

Hirugarren batek edo eragiketaren hartzaileak ere bete ahal izango du TicketBAI betebeharra.

<Hirugarren batek edo hartzaileak egindako faktura> = HI (Hirugarrena)

<Hirugarren batek edo hartzaileak egindako faktura> = HA (Hartzailea)

Kasu horietan, hirugarrena edo hartzailea pertsona edo erakunde bera izan beharko da, fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduan (maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutakoa) ezarritakoaren arabera, faktura edo egiaztagiria egiteko betebeharraren ondorioetarako.

QR kodea egiaztatzea:

PROBAK ingurunean QR kodeak egiaztatzeke URLa honako hau da:

<https://pruebas-ticketbai.araba.eus/tbai/qrtbai/>

Kontsultatu nahi den fakturaren parametroen berri emanez:

id – TicketBAI identifikatzailea

s - fakturaren seriea

nf- faktura zenbakia

i- fakturaren guztirako zenbatekoa.

cr – crc-8

Ejemplo: <https://pruebas-ticketbai.araba.eus/tbai/qrtbai/?id=TBAI-99999920Z-181021-sTRsvlUK9tIEC-161&s=2021&nf=1&i=2537.70&cr=036>